

MANIKIEN GALERIA¹

Mikel Zubeldia Etxeberria

Ereintza elkarteak antolatutako “Errenteria Hiria” 2002ko XXII. ipuin lahiaketaren Euskarazko 1. saria

Mikel Zubeldia Etxeberria. Donostia jaioa, 30 urte. Enpresa Zientzietan lizentziatua, eta Kanpo Merkataritzan aditua. Bere lana dela eta, bidaia ugari egin behar izaten du. 2001. urteko Tene Mujika ipuin lehiaketan sariduna. Manikien galeria izena edukiko duen ipuin liburua argitaratzekotan da.

Drusoei buruz horrenbeste dakien
Xabier Eizagirri.

*i comu mi sulvidaré / di vuestrus ojus par-
didus*

*i comu mi sulvidaré / di las nochis
cuandu lus míus si saravan / i lus vuestrus
si quidavan abiertus / cuandu di spantu
si avrian lus di lus muartus / para darmus
esta luz*

qui nunca si amató / di: comu mi sulvidaré
(Clarisse Nicoidski)

Luna de mármol dulce...
(Vicente Aleixandre)

Frazao jaunaren tindategian bada zazpi urtez geroztik inork jaso ez duen traje bat. Traje haren jabea akaso hil egingo zen, Ameriketara ihesi joango edota, andregaiak azken unean ezkontzari uko eginagatik minbera, inoiz ez jasotzera deliberatuko zuen; batek daki.

Gizon bat Frazao jaunaren tindategiko erakusleihora beha ari da. Une batez dudamuda egin ostean, bertan sartzea erabaki du. Ate gaineko kanpaitxoak jotzerakoan, Frazao jauna dendostetik atera da eta, ohi duen bezala, ez du aurpegi gozorik ipini. Hizketan hasi dira. Gizonak erdi gortua dirudi; ozenki hitz egiten du. Zerbait eskatu dio. Dendariak, zapuztuta, ezetz eta ezetz adierazi dio buruaz; gizonak, ordea, tematuta segitu du. Azkenean, Frazao jaunak oniritzi eta dendostean sartu dira biak.

Ikuzgailu erraldoi batek ia osorik betetzen du harlauza zuriko dendostea. Eskuinera, esekitako jantzi errenkadak ageri dira.

Pertxa batzuk alboratuz, metro t’erdi luzerako atea desestali du Frazao jaunak. Hura ireki eta manikien hilerria dirudien galeria ilunean sartu dira; non ile kardatuko nobia, antiojo eta bibotedun polizia edota lehen jaunartzeko neska-mutikoen manikiak amaraun sarez josita azaldu zaizkien. Iluntasunaren sabelean barrena aurrera egin dute, lisaburdina zahar edota *perkloretieno* kaxak saihestu dituzte eta plastiko zurruneke hauts-mendi baten aurrean geratu, eta hari tira eginaz, maniki zurbil batekin egin dute topo.

Gizonak, trajez jantzirik den manikiari hatzaz seinale egin dio, traje huraxe nahi duela adieraziz. Frazao jaunak, hitz lizunen bat murduskatu duen arren, berehala ekin dio zazpi urte luzez soinean izandako trajea erauzteari. Horretan ari dela, hara non eskuturra apurtu zaion manikiari; birao berriz Frazao jaunak. Tindategiko mostradorera itzulita, diru tratua bete dute. Papezko fardela paratu, kirol poltsa marroian

¹ Epaimahaia: Juan Gartzia eta Jesus Mari Mendizabal

sartu eta, Frazao jaunaren begirada erreze-lozkoaren pean, tindategitik irten da gizona.

Dendetako erakusleiho lurrinduak euri tantaz zipriztindu dira. Orpoz orpo zebilkien neguak hezurretan muin eman dion arrats honetan, pentsakor da gizona, nahastuta; egitera doana zilegi den ala ez hausnartzen. Erabat ezinezko iritzita hainbeste urtez esna amestutakoa egia bihurtuko zaio eta egia horrek berak izu-laborria sortzen dio. Eskua galtzetako poltsikora eraman du supituki; Beresford aspaldiko lagunak bidali gutunera. Atera du. Gutunaren lerroetan barrena irristatu du erdi zopatutako begirada, lerroak guraizeak bailiren, elkar gurutzatu diren arte. *Berandu da atzera egiteko.*

Kale estu bihurgunetsu batek Mejillón Irlako portura eraman du. Itsasoa, elkar musukatzen duten mendi-erraldoi loti biren artetik, badiara sartzean erabat baretzen da; ontzi-ola korrokoildu bat, zamaketari garabiak, merkatal ontzi bakan batzuk eta kaio multzoa, itsaslabarrean jira biraka hegaldatzen. Hotza, hezetasuna. Burdinazko panel herdoilduan: *Mejillón-Pretopolis ferrya. Untziratzea 23:00etan.* Garaiz dabil.

Moilako komuna publiko eroriaren kuxidadean erantzi da gizona. Besapeak garbitzen ari dela, sobietar armadako marinela

taldea barneratu da. Eta bera han ez balego bezala, komuneko harlauza zuri lokaztuetan jarri dira, zigarroak erreaz.

Bizarra egin du, baita lurrinaz aurpegia freskatu ere. Franelazko kapelua ipini du; ondoren, behin eta berriz pasaratutako alkandora zuri almidoiztatua. Gero, asko kostata, traje gris iluna. Garai loriatsuetatik erreskatatutako zetazko gorbata, txukun paratu du; musuzapia, belauntzi dotore lez kolkoko poltsikoan ainguratu; eta berunezko botoi zein mahuka-bikiak, behinolako *gentleman*-en estiloaz lotu ditu. Azkenik, ahalik eta bikienaren diren galtzerdi pareaukeratuaz, *habanar* saretadun zapata parelustratua jarri du.

Ispilu ugertutik bere soin dotorea ikustatzen aritu da une batez. *Ez dago gaizki.* Jantzi zaharrak zakarrontzian laga ditu eta, marinelen agur militar eta barre errukitsuen artean, komunetik irten da gizona.

Taila bi txikiago geratzen zaion kaiola barrenean, tente eta ezeroso, *Swift Harbour* ferryra igotzeko errenkadan itxaroten ari da gizona. Antiojo handiko atso zahar batzuen irriñoak nabaritu ditu bere bizkarrean. Atzera galde egin dio bere buruari erokeria hura zertarako egiten ari den. Une batez errenkada utzi eta aterpe-etxerako



bidea hartzekotan izan da. Baina gutunak aipatzen duen aspaldiko amorantearen begirada galdua bere bihotzean iltzatuta da. Halako batean, ferryko popako arrapala ireki dute eta auto eta kamioiak bate-tik eta gizasemeak bestetik, bata besteari bultzaka barneratzen hasi dira. *Berandu da atzera egiteko.*

Zenbat urte ote dira Pretopolisera itzuli ez naizena... bota du ferryko kareletik, eskuz zein banderaxoez ahaide edo lagunak agurtzen diharduen moilako jende andanari mitina eginaz bezala. Hotzikaraz, jakaren papar hegalak lepo aldera bildu ditu.

Halako batean, martxan jarri da ferrya. Aulki luzez osoturiko kamarotean, anorak koloretsuekin jantzirik doazen gaztetxo talde baten ondoan egokitu zaio gaua igarotzea. *Ji-ji eta ja-ja*, zorionaren urdinean, vodka botilez gainezka dira. Haien festara gonbidatu dute hain dotore agertu zaien agure trajeduna.

Ikaragarri edan du. Goizeko ordu bietan, balantzaka, gorputzeko edozein zulatik barruak husteratu irten da karelera. Gorbata lasaitu eta botaka. Sudur txapal gorritua, eztiaren distira tristea begietan. Kanpoan itsaso bizia, ilargia marmolezkoa. Hotzez akabatuta, Galinaz oroitu da. Bizirik ote zegoen? Hala izanda ere, zergatik nahiko zuen Galinak bere borrarera berriz ikusi? Ez ote zen broma txarren bat izango gutunarena? *Beresford putakumearen beste broma astunen bat...* Urteak baitzeramatzan Galinak desagertuta. Berrari ere egotzi zioten haren desagertzea. Baina berak, jo besterik ez zuen egiten. *Jo. Besterik ez.* Negar zotinka da gizona.

Goizeko seiak aldera ailegatu da *Swift Harbour* Pretopoliseko portura. Film mutu batean bezala sakabanatu dira, arrapatik behera, ferryko bidaiariak. Gauraren azken muturrean, *Chapmans Nitrate Co.* enpresatarreko tximinietako kea zeru gorritzarekin nahasten ari da eta portuko zoru zein autoak izozturik dira. Arrantzale kale estuetan barrena galdu da gizona; Beresforden gutunak dioen *Café Dax*-en bila. Ordu erdi exkax hitzordurako. Mahaitxo prestatzen diharduen egunkari-saltzaile bati galde egin dio; baita besteak harriduraz erantzun ere. Txukun jarrita dauden egunkari guztiek, Ronald Reagan,

amerikar presidentearen koloneko minbi-ziaren berria dakarte lehen orrialdean; mundu zabaleko begi orok zeluloideko *cow-boy* zaharraren heste lodiari begira gosalduko du.

Iritsi da gizona *Café Dax*-era. Gaua maitasun tenplu horren epelean igaro duten bezero bakan batzuk, brillantina berantiarreko gau-maitaleei orduz kanpoko azken zirriak emanez; mozkor koadrila, bizona puska ustelak damatxo beltzaran axolagabeari haizatzen; eta larruzko praka beltz estuko gizona, senar eredugarriari gorbata txukuntzen. Baina han ez da Beresford ageri. Alde guztietara begira ari den arren, ez da inondik ageri. Azkenean, tabernaren barrualdera joanda, hara non mostradorearen azken puntan, Beresford, eskuaz agurtzen ari zaion.

Elkarri uzkiak usaintzera doazen bi zakur zaharrek erakutsi errespetuz, une batez begira-begira geratu ostean, elkar gogor besarkatu dute; alkandora hawaiiar zuri-berdeaz jantzirik den Beresfordek, bezperako aurpegia, bezperako hatsa, eta gau-narrasti bakan baten lurrin eta zuku sarkorrak bere gain dituelarik. Eskuin eskuaz ukabilkada-imintzioa egin du Beresfordek eta ezkeraz, masaileko maitekor bat ematen saiatu den arren, zuhurtziak eta ofizioak eskatuta, gizonak eskuaz geratu du. Jakako barneko poltsikotik ferryko txartela atera du gizonak, eta esker-rak eman Beresfordi, hark ordaindu izan balizkio bezala.

Txokolatea eta txurroak gosaldutuzte; anis zorrotada batekin. Galinaz arituko ziren. Edota gaztetako garaiaz. Ez dute luzaroan hitz egin, gizonaren gorrieriak berehala zapuztu baitu Beresford. Elkartzehuraxe izango al da dozenaka urte bitarteko gorrotoaren amaia? Izan ere, gizonaren laguntzaz ez balitz, ez zen boxeo munduan inor izatera ailegatuko Beresford kazetaritxo. Eta putakumeak, *Pretobox* aldizkarian, *Izar-errautsak* artikulua mingarria idatziaz ordaindu zion; orduan eten zen bien arteko adiskidetasuna. Eta zer esanik ez mafiarekin nahastu zenean...

Café Dax-eko pertsianak jaitsi ondoren, moilan zehar abiatu dira. Bakarrizketan dirudi Beresfordek. Gaztetako denborak haizatzen, ezer berririk esan gabe. *Betiko Beresford, plazagizon papartsu*

mozoloa; aterpe-etxeko patioko arratoi konkordun potoloen itxurakoa. Gorroto du. Isilaldi luze bat sortu da, Beresfordek: 'Barrel Co' Hamazazpi konbate irabazi, horietatik bederatzi K.O-z, hogeita lau galdu, Ziu! Hirea bai, marka! edo antzeko zerbaitekin konpondu nahi izan duena. Baina gizonaren begirada hotzaz ohartuta, isildu da Beresford. Hortik aurrera hitz apurren bat erori den arren, hurrengo isilune luzearen rounda ez dute gainditu. Hartara, Beresfordek paper batean jomugaren argibideak idatzi dizkio, tentu handiagoz besarkatu dute elkar eta, agur edo inoiz arte esanaz, desagertu da bata bestearen bizitzatik.

Eguerdiko hamabiak dira. Euri jasaren erdian, trenbide azpiko arkupeko bistrot ziztrinean sartu da gizona; baba-jana egin, eltzeko kafea hartu eta *Dummy* markako purua ere erre du, aspaldiko partez. Ondoren, lo-susta goxoa egin du; platano orbel bustiaren zafladak esnarazi duen arte. Parkeko aulkitik ezeroso jaiki da orduan gizona, nagiak atera ditu eta bere ibili herrenak Hurlingham enparantzako *Galleries Guy-Labre-cher*a eraman du.

Duela dozenaka urte bezala, erakusleihan jarraitzen duten maniki berberak agurtu ditu kapeluz. Garai batean, Galina pinpirinaren eskutik hartuta, luxuzko denda horietara joan eta traje eta sonbreiru ponposo guzti-guztiak probatzen zituzten. Baina nolaz eta diru izpirik ez zuten, soilik une batez amesten zuten maitaleek, dendaria zapuztu eta kalera bidaltzen zituen arte. Zoriontsuak baitziren, dena gainbehera zihoakien garaietan ere. *Berriz ere harekin paseatzeko betarik izango banu, sikiera...*

Aurrera egin du eta orain *Cory Aquino* deritzon kalean *Boxing Palladium*-aren partetik igaro da. Bere hastapenak. Afixaz betetako antzoki moduko eraikin honetan, atea katez lotua aurkitu du. *Izango al da orain gauari abesten dion boxeolaririk?*

Arratsaldeko seiak aldera eguraldi petralak behar baino lehenago ilundu du zerua. Iritsi da ordua. Odola burura bildu zaio. Hortzak estututa, euri, gandu, eguzki-tarte, haize gogor artean ibiltzen jarraitu du gizonak zurbil. Eta gogora ekarri dio ekialdeko herrietan, borreroek seme fusilatuaren bala amaren etxera ekarri, erakutsi eta kobratu egiten diotela. Eta bala bero hura bere eskuetan baleuka bezala sentitu da. Autoen burrunba. Horietako batek galtza-barrenak

erabat busti dizkio. Taxi hori bat inguruan; haren parean trakeski gelditu eta bertan sartu da gizona.

Ordurako, ogi mamia uretan bezala dabil. Errepide nagusia utzi dute. Eta bere gazte garaian padurak baino izango ez ziren auzo periferiko batean sartu dira. Taxi korrokoilduaren kristal bustiek neonezko gurutze eta emakume formak irudikatzen dituzte. Inguruan trumoika. Zenbat eta urrutirago joan, orduan eta argi eta jende gutxiago. Kale bazterrak lokaztu dira; erre-kastoak osatu. Farola bakarti baten argia joan egin da. Borborka ari den ur-hodi pitzatu batek osatu putzuaren aurrean, motorra itzali du taxilariak. Aurrerago ez duela autorik eramango. Gizonak tematuta segitu du eta, lepotik hartzeko zorian dela, jakako sisaren joscira apurtu zaio. Bere horretan utzi du taxia gizonak; sosik ordaindu gabe.

Ia belaunetaraino iristen zaion putzua gainditu du eta bere garaian existitzen ez ziren, erlauntza itxurako etxe-sail lokaztuetan barrena galdu da. Kale bazter batean zamarra beltzeko bi gazte aitzoz elkar xaxatzen topatu ditu. Zerbait galdetu die dorpeki. Hauek, harri eta zur, borroka eten dute eta gizonari, non baino nor zehaztasun gehiagoz, argibideak ematen aritu dira. Eta zertan ari ziren ahaztuta, kosta zaie berriz borrokari ekitea. Baina ordurako gizona urrun da, arratsaren sabelik urdinenaren baitan.

Orube baten ondoan den azken etxe-sailera iritsi eta hango bebarru estuan sartu da. Argirik ez. Zazpi edo zortzi solairu igo ditu oinez; akituta iritsi da. Nekeaz, 77 zenbakidun atean eskuak ezarri ditu eta berau bakarrik ireki da. Harlauza pitzatuko pasillo luze batek, eguzki eroriagatik, batetik besterako urregorritzko labezomorroak ageri ditu. Jasan ezinezko kiratsa. Pasilloan aurrera egin du. Denboraren memoria galdua duen paretako erlojua. Haren aurka, zaborrez gainezka den poltsa bat, han beste bat, hor mendixka bat, eta intsektu fauna inboluzionista etxea gobernatzen. Sukaldera ailegatu da. *Beresford putakumearen broma bada...* pentsatu du. *Akatu egingo dut.* Sukaldeko armairu guztiak ireki ditu: *Blunderbuss Corned Beef*, behi okela potez gainezka. Baita Ceylango tea. Eta *Vene-gass* errizino-olio flaskoak ere. *Ez da posible.*

Eskuinaldera logela handi bat. Ohe batean, dama zahar bat etzanda. Gainmakillatutako txinatar begi ñimiñoak, nola hala margotutako bekainak, kapritxoak asmatutako orban tanta, gau-soineko beltza eta marabu lumako ularra. Galina. Militar potolo baten foto zaharra oheburuan. Boxeolari gazte batena alboan: *Neroni*. Galina. Ileordetik benazkotik baino gehiago duen ile kizkur gris-urdina, buelta askotako perla potoloak eta kristalezko esmeraldak. Dama eroaren dotorezia ponposoa; mende laurden oso bat ohean etzanda gizonaren esperoan bale-rama bezala. Horrenbeste urte eta gero... Galina.

Elkarri begiratu diote; sakonki begiratu diote. Irribarre izate-ra iritsi ez den zerbait mingarria irudikatu zaio emakumeari aurpegi-egian. Plastikozko loreak eskaini dizkio gizonak, bere izena ahoskatzera ausartu gabe. Plastikozko loreak, eta emakumeak dardara bere ezpain ubeletan. Denbora zintzilik, mutu; zintzilik eta emakumeak gorputz enborra jaiki ohetik, eta tu egin dio gizonari. Indar guztiaz egin dio tu eta begien erdi-erdian jotzea asmatu. Eta gizona, buelta erdia emanda, gelatik irten da, begiak erabat gorrituta. *Pentsatzekoa zen*, bururatu zaio gizonari amairik gabeko eskaierak mantso jaisterakoan eta rimmelaz urdindutako malkoa jausi zaio emakumeari; eta porturako bidea hartu du gizonak betilun, eta esku tartean plastikozko lore sorta eta...

Ez da itzulerako gaueko ferrya hartzeko garaiz iritsi gizona. Hartara, portuko etxola aurrefabrikatuko aulki luze gogorretan eman du gaua; alkoholiko, *yonkie*, *clochard*, eta urdanga horz-bakoen artean. Gelako bero kondentsatu, zurrunga, itogin, zakur hats, azalorre urdindu, patata azalen kiratsagatik soilik ez, baizik eta aterdurarik gabeko oroitzapenen txingor jasagatik, ez du loak hartu gizona.

* * *

Gizon bat Frazao jaunaren tindategiko erakusleihora beha ari da. Une batez duda-muda egin ostean, bertan sartzea erabaki du. Ate gaineko kanpaitxoak jotzerakoan, Frazao jauna dendostetik atera da, eta ohi duen bezala, ez du aurpegi gozorik ipini. Gizonak kirol poltsatik erabat zimurturiko trajea atera eta itzuli egin dio. Marmar egin du Frazao jaunak. Ondoren gizona sos batzuk luzatzen hasi zaio epeka, tratuan ariko balira bezala. Halako batean amaitu dutenean, tindategitik irten da gizona.

Frazao jaunak trajea ikuskatu du; eskuin mahukako sisaren jostura askatuta dela ohartu denean, ozenki egin du birao. Zertxobait lasaitu denean, gizonak aurrez esandako izena, *Franklin Cornejo*, mekanikoki idatzi du kartoitxoan, jantziari grapatu eta dendostera jo du betilun. Baina bidean geratu da. *Franklin Cornejo?*, esan du atzera begira, *Ez ote da ba, 'Barrel Co', garai bateko boxeoa izarra? Duela ia zazpi urte, sosik ezean, traje hauxe bahituran utzi zidan pajaro berbera?* Frazao jaunak, manikia trajeaz berriz atontze bidean, ezpainak bildu ditu: *Ez, ez zen hura izango. Ezta pentsatu ere...*

